



**BILLABONA KIROL ELKARTEAK AURKEZTUTAKO ERREKURTSOA  
EZESTEN DUEN AKORDIOA, GIPUZKOAKO FUTBOL FEDERAZIOAREN  
LEHIAKETA ETA KIROL DIZIPLINA BATZORDEAREN 2017KO  
MARTXOAREN 14KO ERABAKIAREN KONTRA ETA PARTIDUA 0-3  
GALDU IZANAREN ZIGORRA EZARTZEN DIONA, KONTRAKO  
TALDEAREN ALDE**

---

**Espediente-zenbakia: 32/2017**

**AURREKARIAK**

**Lehena.**- 2017ko martxoaren 22an, Gipuzkoako Futbol Federazioak (aurrerantzean, GFF) BILLABONA KIROL ELKARTEAK (aurrerantzean, errekurtsogilea) aurkeztutako errekurtsori buruzko dokumentazioa bidali zion Kirol Justiziako Euskal Batzordeari (aurrerantzean, KJEB), Gipuzkoako Futbol Federazioaren Lehiaketa eta Kirol Diziiplina Batzordeak (aurrerantzean, Lehiaketa Batzordea) hartutako 2017ko martxoaren 14ko erabakiaren kontra. Haren bidez, eta kontrako taldeari, hau da, URKI CDri salaketa jarri ostean, elkarte horri zigorra jartzea eta partiduaren galtzailatzat jotzea erabaki zen, arau-hauste larri bat egiteagatik [eskola-kiroleko lehiaketan diziiplina-araubideari buruzko uztailaren 23ko 391/2013 Dekretuko 15 e) artikulua] (aurrerantzean, 391/2013 Dekretua).

Lehiaketa Batzordeak zigorra ezartzea erabaki zuen lehiaketa arautzen duten arauak ez bete izanagatik, hau da, Gipuzkoako Futbol Federazioaren 20. Zirkularreko (aurrerantzean 20. Zirkularra) 4. puntua ez betetzeagatik, 2016-2017 ikasturteko haurren lehiaketari buruzkoa. Bertan argi eta garbi adierazten da, partidu bakoitzean, taldea osatzen duten jokalarri guztien (20) % 80 (16) iragarri behar direla. Bestalde, 14 baino ez ziren bertaratu. Agertu ez ziren sei jokalarri horietatik bat bakarrik justifikatu zela ulertzen du Batzordeak.



Errekurtsoarean bitartez zigorra ezeztatu nahi da, errekurtsogilearen ustez, aurkeztutako dokumentuek, hau da, familiaren eta sendagileen ziurtagiriek halabeharrez justifikatzen baitute zigorra eragin duen sei jokalaria ez agertu izana.

**Bigarrena.**- KJEBk Gipuzkoako Futbol Federazioari (aurrerantzean, GFF) espedientea eskatzea erabaki zuen, eta egokitzen jotzen zituen alegazioak aurkezteko epea eman zion. Alegazioak 2017ko apirilaren 11n aurkeztu ziren.

### **ZUZENBIDEKO OINARRIAK**

**Lehenengoa.** Lehenik eta behin, KJEB honek errekurtsoa ebazteko duen ahalmena zehaztu behar da.

Espedientean jasotzen den moduan, Gipuzkoako Futbol Federazioaren Lehiaketa eta Kirol Diziplina Batzordea da zigorra ezartzen duena eta, beraz, Euskadiko Futbol Federakundearen Diziplina Erregelamenduaren 9.1. artikuluan xedatutakoari jarraiki, Federakunde horren Apelazio Batzordeari egokituko litzaioke hura ebaztea: «*Euskadiko Futbol Federakundeko Diziplina Batzordearen ebazpenen eta lurralde-federazioetako diziplina-organoak hartutako ebazpenen kontrako errekurtsuez arduratuko da Apelazio Batzordea*».

Dena den, lehen mailako infantilen kategoriako txapelketa –errekurritutako zigorra esparru horretan ezarri da– Gipuzkoako Eskola Kiroleko Jardueren Programan gaineratuta dago eta, Lehiaketa eta Diziplina Batzorde horrek Euskadiko Futbol Federakundearen Diziplina Erregelamendua aplikatzen ez duenez, 391/2013 Dekretua baizik, hark Eskola Kiroleko Diziplina Batzorde gisa jarduten duela ondorioztatzen dugu (20. Zirkularraren 7. puntua). Horrela, bada, Dekretu horren 4.1. artikulua aplikatu beharko litzateke eta,



haren arabera, eskola-kirolaren organo eskudunei eta, bigarren instantzian, KJEBri dagokie eskola-kirolaren diziiplina-ahala gauzatzea.

**Bigarrena.** Espedientean gaineratutako dokumentazioak (arbitroaren karta, Lehiaketa Batzordearen ebazpena eta errekurtsogilearen alegazioak) argi eta garbi frogatzen du BILLABONA KIROK ELKARTEAK 20 jokalaria zituela inskribatuta, eta horietatik 14 bakarrik agertu zirela partidura.

20. Zirkularraren 4. puntuak honako hau xedatzen du: «*Batzar Nagusian hartutako akordioa jarraituz, taldea osatzen duten jokalarien %80a deialdian eta partidaren bertan egon beharko da. Arau hau betetzen ez bada eta aurkako taldearen aurretiko salaketa bat baldin badago, partidua galdutzat emango da salatuta izan den klubak aurkezten dituen ezinbesteko kausak behar bezala justifikatuak eta frogatuak izan ezean*».

Horrela, bada, gutxienez 16 jokalaria deitu beharko zituzten (taldea osatzen duten jokalarien % 80). Baina 14 bakarrik bertaratu ziren.

Errekurtsogilea 6 jokalaria horiek ez agertu izana justifikatzen saiatu da eta hainbat dokumentu aurkeztu ditu (famiariaren eta sendagileen ziurtagiriak). Nolanahi ere, eta Lehiaketa Batzordeak inpugnatutako akordioan eta ondorengo alegazioetan berretsi duen moduan, aurkeztutako osasun-agirietatik (A.N.I, A.B.A eta A.U.F.) azken horri dagokiona bakarrik har daiteke kontuan, ziurtagiri guztiek partidua egin ondorengo datakoak baitira eta azken horretan bakarrik aipatzen baita partida-egunean jokalaria ez zegoela jolasteko moduan. Beste bi ziurtagirietan ez da adierazten lesioa noiz gertatu zen, ezta partiduaren egunean jokalaria jolasteko moduan zegoen ala ez ere.

Beste hiru jokalarien -U.B.I, L.A.S. eta H.AL- ziurtagiriei dagokienez, ez agertu izanaren azalpenak kontuan hartuta ere, horiek ez dute halabeharrezko egoerarik eragiten, hau da, aurreikusit ezin zitekeen edo, aurreikusita ere,



saihestezina izango litzatekeen egoera bat, ezta eginbidea aplikatuta ere. Izan ere, egoera horretan ez litzateke 20. Zirkularreko 4. puntua aplikatu beharrik izango.

Horrenbestez, 20 lizentziei baja justifikatu bat (19) kendu behar zaio, baina arestian aipatutako % 80a aplikatuz gero, errekurtsogileak 15 jokalarirekin joan beharko zukeen partidura, eta ez 14rekin.

Errekurtsogileak «osasun-agiri gehiago» aurkeztu ditu errekurtsuan, baina aurrekoen aldaketak baino ez dira, hau da, dagoeneko aurkeztutako proben aldaketa hutsak. Zentzu horretan, honako hau dio Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 118.1. artikulua: *«Errekurtsiak ebaztean, ez da kontuan hartuko errekurtsogileak alegazioen izapidean aurkeztu ez duen egitate, dokumentu eta alegaziorik, alegazioen izapidean aurkezteko aukera izan bazuen. Ezin eskatuko da frogak egiteko, orobat, ebazpen errekurritua eman zen prozeduran ez egin izana interesdunari inputa dakiokenean.»*

Azaldutako guztia kontuan hartuta, BILLABONA KIROL ELKARTEAK 391/2013 Dekretuaren 15.e) artikuluan jasotako arau-hauste larria egin du –«Lehiaketen arauak ez betetze hutsa»–, eta, beraz, 20. Zirkularreko 4. puntu aplikagarrian zehaztutako zigorra ezarriko zaio, Dekretu horretako 17.2 h) artikuluan xedatutakoari jarraiki: *«h) Egun bati edo proba bati dagozkion puntuak, partidak edo sailkapeneko postuak galtzea.»*

Horren guztiaren ondorioz, Kirol Justiziako Euskal Batzordeak, honako hau

**EBAZTEN DU**



xxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxx jaunak, BILLABONA K.E. klubeko lehendakari gisa, Gipuzkoako Futbol Federakundearen Kirol Lehiaketa eta Diziplina Batzordearen 2017ko martxoaren 14ko erabakiaren kontra jarritako errekurtsua ezestea, eta, beraz, klubari partidua 0-3 galdutzat ematea, kontrako taldearen alde, arau-hauste larria betetzeagatik.

Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraz, erabakiaren aurka aukerako berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal izango dute interesdunek Kirol Justiziako Euskal Batzordean hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, edota administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkeztu ahal izango dute Donostiako Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, Administrazioarekiko auzien jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legeak ezarritakoari jarraituz.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko maiatzaren 29a.

**JOSÉ LUIS IPARRAGIRRE MUJICA**  
Kirol Justiziako Euskal Batzordearen presidentea